

Larrotxene Bideotik (Larrotxene K.E.), zenbait eduki eskainiko dira astean zehar, bai Youtuben eta bai Twitch-en. Hasiera honetan, honako hauek:

- ***After effects tutoriala***

Asteartero: Bideotutorial berri bat (Youtube)

Ostegunero 19:00etan. (Twitch): Zuzeneko emanaldi honetan ikasleen galdera eta zalantzei erantzuna emango zaie. Zalantzak argitzen direnean, ariketa praktiko gisa, mikro-piezak egingo ditu komunitateak.

- ***Transmediazine***

Hamabostean behin: asteazkenetan (Youtube)

Narrazio digitalekin zerikusia duten gaien inguruko mikro-magazina. Bideo-jokoak, ARG-ak, Errealitate birtuala, Errealitate Areagotua, Sare sozialen bidezko kontakizunak, formatu berri horietan murgiltzera gonbidatuz.

- ***Larrotxean Zuzenekoak***

Astean behin: ostiraletan 19:30etan (Twitch)

Larrotxeneko hainbat laburmetrai zuzenean emango dira. Emanaldi bakoitza gai konkretu baten inguruan antolatuko da eta ikusleek zuzenean galderak egin ahal izango dituzte, sortzaileek skype bidez parte hartuko baitute.

Larrotxene Bideoko komunitatea modu birtualean harremanetan jartzeko helburua du formatu honek. Zentzu horretan, Larrotxene Bideotik kanpo egindako film laburrei atea irekita utziko zaie ere.